

INDUSTRIA ELEKTRONIKAREN ETA AUTOMATIKAREN
INGENIARITZA GRADUA

GRADU AMAIERAKO LANA

***BALL & BEAM SISTEMA BATEN
KONTROLAGAILUAREN DISEINUA ETA
INPLEMENTAZIOA RASPBERRY PI BATEAN***

Ikaslea: Sesar, Gil, Markel

Zuzendaria: Casquero, Oyarzabal, Oskar

Ikasturtea: 2018-2019

Data: Bilbon, 2019ko otsailaren 2an

LABURPENA

Proiektu honetan, Ball & Beam sistema bat diseinatu eta eraiki da hutsetik abiatuta. Nahiz eta proiektuaren xede nagusia sistema honen diseinua eta kontrola gauzatzea izan den, Ingeniaritza Elektronika Industrial eta Automatiko graduan lortutako konpetentziei erabiliz, beste alor batzuetan sakondu nahi izan da.

Hiru dimentsiotako piezetatik hasita, seinale analogikoen eskuraketatik pasatuz, instrumentazio elektronikoaren seinalearen egokitzapenean, zirkuitu elektroniko digitalen erabileran, maila altuko lengoaiekin programazioan, erregulazio automatikoan eta automatismoen diseinuan lan egin da, azken urteotan ikasitakoari aplikazio zuzena eman nahi izan zaiolarik.

Memoria honetan, Ball & Beam sistemaren modelizazio matematikoa aurkituko da, bere TF-arekin eta planta errealekiko konparaketa batekin. Kontrolari erreparatuz, kontrolagailu bat diseinatu da sistema jarrai batentzako eta ondoren doitu egin da, erantzun denbora optimo batean egonkortu ahal izateko moduan, gainezarpen ahalik eta baxuena bilatuz eta errore txiki bat onartuz, irakurketa analogikoak emanda.

Gako-hitzak: Kontrola, Raspberry Pi, balantzina, Ball & Beam

RESUMEN

En este proyecto, se ha diseñado y fabricado un sistema Ball & Beam partiendo desde cero. Aunque el objetivo principal del proyecto sea el diseño y control del sistema anteriormente mencionado, se han intentado abarcar todas las especialidades, para poder así profundizar en todos los ámbitos que el grado de Ingeniería Técnica Industrial Electrónica y Automática nos ha proporcionado.

Comenzando por el diseño 3D de las piezas a prototipar, pasando por la adquisición de señales analógicas, la adaptación de señales con métodos de instrumentación electrónica, recurriendo a la electrónica digital, programando en lenguajes de alto nivel, aplicando los conceptos sobre regulación automática y automatismos, se han intentado aplicar los conocimientos adquiridos estos últimos años.

En esta memoria encontrará el desarrollo del modelo matemático del sistema Ball & Beam teórico, junto con su respectiva TF y contraste con la planta real. En lo que al control se refiere, se ha diseñado un controlador continuo con su posterior discretización, para conseguir estabilizar en un tiempo de respuesta óptimo y con el menor rebose posible, admitiendo un error mínimo dado por la lectura de la distancia analógica.

Palabras clave: Control, Raspberry Pi, balancín, Ball & Beam

ABSTRACT

For this project, a Ball & Beam system has been designed, assembled and produced from scratch. Although the aim of the project is to design and control previously mentioned system, it has tried to embrace as much specialities as can, in order to scope what the Industrial Technical Engineering in Electronics and Automatics degree has provided to the student.

Starting from the 3D design of the parts that have been printed, followed by the acquisition of analogic signals, signal adaptation using electronic instrumentation techniques, using digital electronics, programming in high level languages, using control, regulation and automatism concepts and trying to apply all the knowledge gotten these last years.

In this project you will find the development of the theoretical mathematical model of the Ball & Beam system, followed by its transfer function contrast with the actual real plant. Referring to the control made, a continuous controller has been designed, followed by his discrete version of it, in order to reach a optimal settling time with the minimum overshoot possible, accepting a minimal error due to the misread of the analogic distance.

Keywords: Control, Raspberry Pi, rocker, Ball & Beam

AURKIBIDEA

LABURPENA	i
RESUMEN	ii
ABSTRACT	iii
AURKIBIDEA.....	iv
IRUDIEN ZERRENDA	vi
TAULEN ZERRENDA.....	
AKRONIMOEN ZERRENDA.....	
A. SARRERA	1
B. TESTUINGURUA.....	3
C. HELBURUAK.....	4
D. ONURAK.....	5
E. BALDINTZEN DESKRIBAPENA	6
F. ALTERNATIBEN ANALISIA.....	7
- Flash ADC.....	9
- Sigma-Delta ADC	10
- Dual Slope ADC.....	10
- SAR ADC	11
G. PROPOSATUTAKO DISEINUA	14
1. RASPBERRY PI 3B+.....	14
2. MCP3008 ADC (Bihurgailu Analogiko Digitala).....	15
3. DISTANTZIA NEURTZEKO SHARP SENTSOREA (GP2Y0A21YK)	15
4. PWM-A ETA SERBOMOTOREA	20
5. SEINALE ANALOGIKOEN ESKURAKETAK	21
6. SEINALE ANALOGIKOEN BIHURKETA.....	23
7. KOMUNIKAZIO METODOAK ETA PROTOKOLOAK.....	24
8. KONTROLAGAILUAREN DISEINUA ETA IMPLEMENTAZIOA.....	26

8.1.	EREDUA.....	26
8.2.	ERAGINGAILUAREN MODELIZAZIOA.....	27
8.3.	SISTEMAREN MODELIZAZIOA.....	28
8.4.	KONTROLAGAILU JARRAITUAREN KALKULUA.....	29
8.5.	KONTROLAGAILUAREN DISKRETIZAZIOA.....	34
8.6.	LAGINKETA PERIODOAREN AUKERAKETA.....	37
8.7.	KONTROLAGAILUAREN INPLEMENTAZIOA.....	40
H.	PLANGINTZA.....	42
	PROIEKTUAREN DISEINUA.....	42
	ZEREGIN KRITIKOAK.....	47
	GANTT DIAGRAMA.....	48
	GANTT ZEREGIN KRITIKOAK.....	52
I.	ONDORIOAK.....	60
J.	BIBLIOGRAFIA.....	63
K.	ERANSKINAK I.....	I
1.	ESKEMA ELEKTRIKOA, KONEXIOAK ETA PCB-A.....	I
	ESKEMATIKOA.....	II
	FOOTPRINT PATH.....	III
2.	PROTOTIPATUTAKO 3 DIMENTSIOTAKO PIEZAK.....	IV
	ROCKER BASE.....	V
	ROCKER BASE END.....	VI
	ROCKER MOUNT 1/2.....	VII
	ROCKER MOUNT 2/2.....	VIII
	CIRCLE.....	IX
	ROCKER ROD.....	X
	ROCKER MOUNT END.....	XI
	ROCKER MOUNT LID.....	XII
3.	PLANTAREN MODELIZAZIO MATEMATIKOA.....	XIII
4.	PROGRAMAZIO KODEA PYTHON-EN.....	XXI

IRUDIEN ZERRENDA

Irudia 1 Ball&Beam maketa	1
Irudia 2 Zehaztasuna adierazten duen grafika. Erresoluzioaren eta laginketa denboraren arteko harremana.	8
Irudia 3 Lagin denbora adierazten duen grafika	8
Irudia 4 Bit erresoluzioa adierazten duen grafika	8
Irudia 5 Flash ADC bihurtailua	9
Irudia 6 ADC baten konparadorea.....	9
Irudia 7 Sigma-Delta ADC bihurtailuaren eskema.....	10
Irudia 8 Dual Slope ADC bihurtailua. Kondentsadorearen	10
Irudia 9 SAR ADC bihurtailuaren barne funtzionamendua.	11
Irudia 10 SAR ADC bihurtailu baten sarrera eta irteera-ren arteko erlazio adibidea.....	11
Irudia 11 ADC bihurtailu ezberdinek biltzen dituzten erresoluzio tartek.....	12
Irudia 12 Ball&Beam sistema. Alboko ikuspegia.....	14
Irudia 13 Raspberry Pi 3B+ aren goitiko bista	14
Irudia 14 Sharp sentsorearen irakurketa denbora. Datasheet-etik.....	15
Irudia 15 Sharp sentsorearen kurba karakterisitko hurbildua. Datasheet-etik.	16
Irudia 16 Distantzia ezberdinetarako jasotako tentsio dispertsio grafikoa.....	18
Irudia 17 Sentsorearen tentsioa eta distantzia erlazionatzen dituen dispertsioa. 5. mailako bi hurbilketa polinomiko biltzen ditu, urdinez distantzia luzeentzako eta laranja distantzia laburrentzako.....	18
Irudia 18 Hurbilketa lineala <i>Irudia 17</i> -k dituen ardatz erlazio berdinekin	19
Irudia 19 Hurbilketa esponentziala <i>Irudia 17</i> -k dituen ardatz erlazio berdinekin	19
Irudia 20 Hurbilketa logaritmikoa <i>Irudia 17</i> -k dituen ardatz erlazio berdinekin.	19
Irudia 21 2. Ordenako hurbilketa polinomikoa <i>Irudia 17</i> -k dituen ardatz erlazio berdinekin.....	19
Irudia 22 3. Ordenako hurbilketa polinomikoa <i>Irudia 17</i> -k dituen ardatz erlazio berdinekin.....	20
Irudia 23 4. Ordenako hurbilketa polinomikoa <i>Irudia 17</i> -k dituen ardatz erlazio berdinekin.....	20
Irudia 24 Serbomotrearen angelu posizioa periodo edo Duty Cycle ezberdinrentzako.....	20

Irudia 25	Sentsore baten irteera eta sarrera errepresentazioa	21
Irudia 26	SPI seriezko konexio adibidea	25
Irudia 27	Kontrol begizta sinplifikatua.	26
Irudia 28	<i>Duty Cycle</i> -a eta serbomotrearen angelua erlazionatzen duen dispertsio laginketa	27
Irudia 29	Planta identifikatzeko parametroen doiketa	28
Irudia 30	Plantaren erroen lekua begizta itxian	29
Irudia 31	Plantaren erantzuna begizta itxian eskaloi sarrera batekiko.....	30
Irudia 32	Kontrol begizta basikoa sistema jarraitua simulatzeko.	30
Irudia 33	pidTuner erremintarekin lortutako erantzuna.....	31
Irudia 34	Sarrera unitario batekiko erantzuna. Kontroladorearekin eta kontroladore gabe. BI-n	32
Irudia 35	Sistemaren erroen lekua kontrolagailuarekin. BI-n.....	32
Irudia 36	Lehenengo handipena (35.irudiarena)	33
Irudia 37	Kontrol begizta hibridoa. Sistema laburpena diskreturako	34
Irudia 38	Transferentzia funtzioaren Bode diagrama. Frekuentziaren analisisia	35
Irudia 39	Tustin edo hurbilketa trapezoidala simplifikazioa.....	36
Irudia 40	Sarrera unitario baten kontrolagailudun sistemaren erantzuna BI-an.	38
Irudia 41	Erroen lekua sistema diskretizaturako, kontrolagailuarekin. BI-an. Rlocus	38
Irudia 42	Lehenengo handipena (41.irudiarena)	39
Irudia 43	Errekurtso bakoitzak egindako lanaren konparaketa	46
Irudia 44	Errekurtso bakoitzaren kostua proiekturako, konparaketa	56
Irudia 45	Proiektua garatzen en heinean izango duen kostu pilatua	57
Irudia 46	Kontrol seinalea, iragaz gabe	60
Irudia 47	Sarrera unitario batekiko erantzuna, iragazkiarekin.....	60
Irudia 48	Kontrol seinalea, iragaztuta	60
Irudia 49	Simulink diagrama kontrolagailua bizkor inplementatzeko	61
Irudia 50	Eraikitako maketa	62
Irudia 51	Fabrikatu den PCB-a	I
Irudia 52	PCB-aren <i>board</i> ikuspegia	I
Irudia 53	Eskematikoa.....	II
Irudia 54	PCB-aren goiko bista. Fabrikaziorako	III
Irudia 55	PCB-aren Beheko bista. Fabrikaziorako prest.....	III
Irudia 56	Ball & Beam sistemaren simplifikazioa	IV
Irudia 57	Partikula baten mugimendu errotazionala.....	XIII

Irudia 58 Sistemaren angeluen izenak eta distantziak.....	XVIII
Irudia 59 Angeluen arteko erlazioa.....	XIX
Irudia 59 Fluxu diagrama	XXI

TAULEN ZERRENDA

Taula 1 Motor ezberdinen alternatiben analisia.....	7
Taula 2 Konparaketa baldintza.....	9
Taula 3 Laginketa abiadura eta prezioa ADC ezberdinentzako.....	12
Taula 4 ADC bihurtu ezberdinak alderatzen duen alternatiben analisisien taula.	13
Taula 5 Distantzia ezberdinetarako ADC-an jasotako irakurketa eta tentsioa..	17
Taula 6 DC -a eta angelu laginketa	28
Taula 7 Errekurtso/pertsona bakoitzak izango dituen lan orduak eta lan tarte periodoak	46
Taula 8 Zeregin kritikoak eta hauek betetzeko behar izango den denbora jasotzen duen taula. Errekurtsoak esleituta.....	47
Taula 9 Errekurtso bakoitzaren kostua. Euro-ordutan emanda.	56
Taula 10 Zeregin orokorren kostua.....	57
Taula 11 Material kostuen laburpena	58
Taula 12 Proiektuaren kostu totala.	58

AKRONIMOEN ZERRENDA

SE - Sistema Eragile

TF - Transferentzia Funtzioa

ADC - Analog Digital Converter

LSB - Less Significant Bit

MSB - Most significant Bit

REF - Reference

V - Voltage

IN - Sarrera

OUT - Irteera

DC - Duty Cycle

PWM - Pulse Wide Modulation

T_s - Sampling time

t_s - Ezarpen denbora

M_p - Gainezarpena

ITC - Information Transfer capacity

N - Number of bit

CS - Conversion Speed

Ksps - Kilo (/Mega) samples per second

KZ - Korrante zuzeneko

SAR - Successive Approximation Register

S/H - Sample and hold

MOSI - Master Output Slave Input

MISO - Master Input Slave Output

SS - Slave Select

CS - Chip select

CE - Chip Enable

SCK - serial clock

EK - Ekuazio Karakteristikoa


CLK - Erloju ertz

PCB - Printed Circuit Board

BI - Begizta Itxia

A.SARRERA

Ball and Beam sistema oso tresna zabaldua eta erabilgarria da, bai kontrol klasikoak zein kontrol aurreratuagoak garatzeko aukerak eskaintzen dituelako. Ez-linealtasunez betetako sistema honek ezaugarri paregabeak ditu egoera desorekatuak aztertzeko. Erronka bat da kontrol sistemetan hasiberrientzako planta fisiko honen modelo matematikoa ateratzea eta transferentzia funtzioa lortzea. Horrez gain, sistema txertatu batean implementatzeko gai izatearekin batera, sistemaren kontrol diskretizatua lortzeak erronka bat suposatzen du.



Irudia 1 Ball&Beam maketa

Lehen begiratuan sistema nahiko sinplea dirudi. Pilota bat habe baten gainean datza. Kontrolaren zailtasuna dago, pilotaren posizioa etengabe aldatuz doala habearen angeluaren arabera, eta edozein zentzutuan jauzi daitekeela grabitatearengatik. Beraz, kontrolaren funtsa, pilota, bezeroak aurre-erabakitako posizio kontsigna batera eramatean datza, habea alde batera edo bestera okertuz. Mugimendua motore bat erabiliz egingo da eta pilotaren posizioa sensore analogiko baten bidez lortuko da.

Memoria honetan, aurretik aipaturiko lan guztia egingo da, Ball and Beam sistema kontrolatzeko metodo ezberdinak aztertuz, eta Tustin eta Euler-ren hurbilketak erabiliz lortzen diren sistemaren erantzunaren ezberdintasunak aztertuz. Horretaz aparte, kontrolagailuak SE baten menpe ibiliko duenez, kontrolaren gain izango duen eragina aztertu, eta alde txarrak eta alde onak atzemango dira.

Idea honen motibazioa, azken boladan modan jarri izan diren Segway-ak edota Hoverboard-ak izan dira. Egunero gero eta normalagoa da honelako aparatuekin kaletik topo egitea, eta edonork izan du horrelako batetara igotzeko grina. Nahiz eta begi bistan Ball & Beam sistemak pendulu inbertitu batekin zerikusirik ez izan, Segway bat diseinatzeko aurrerapauso gisa har daiteke. Gainera, bi kasuetan bilatzen den sistemaren erantzuna antzekoa izanez, eta Ball & Beam garatzeko erosotasuna dela eta, azken hau egitea erabaki egin da.

B. TESTUINGURUA

Raspberry Pi-aren erabiltzaileak egunero gehiago eta gehiago dira. Zer da hain arrakastatsu bihurtu duena? Eskaintzen dituen malgutasuna eta moldakortasuna dira bere arrakastaren jabe. Raspberry-aren abantailen artean ondorengoak daude: makina bat programazio lengoia erabil daitezke, irteera eta sarrera interfaze asko dituen plaka merkea da, eta hainbat proiektu egiteko erabili daiteke, dibertimenduzko jokoetatik hasiz, segurtasun adimenezko kamera batetik pasatuz eta etxe domotika adimentsua diseinatzeko aukera eskainiz. Baina, azken finean, informatika eta elektronika ikasteko ordenagailu txikia besterik ez da.

Arduino ere oso ezaguna izanik, Ball & Beam sistema asko plataforma honekin garatuta daude, aproposena baita, alegia. Arduino, Raspberry-rekin alderaratu, denbora errealeko sistema bat da, inguruko eremuari erantzuten diona denbora determinista batean. Raspberryak, ordea, denbora errealekoa ez den Raspbian SE- darabil.

C. HELBURUAK

Proiektu honen helburu nagusia Ball & Beam sistema baten kontrola Raspberry Pi 3B+ batean egitea da. Honen harira, sistema eragile (SE) baten gainean dabilen programak zertan eragiten dion sistemaren funtzionamenduari aztertu behar da. Hori lortzeko hainbat azpi-helburu finkatu behar dira, eginkizuna hainbat pausutan egiten baita:

- Ball & Beam maketa bat sortu.
- Sentsore analogikoaren harrapaketa egin.
- Digitalizazio optimoa lortu.
- Serbomotorraren angelua kontrolatu.
- Plantaren eredu matematikoa burutu.
- Sistema jarraiaren Transferentzi Funtzioa (TF-a) lortu.
- Sistema jarraiaren diskretizazioa egin.
- Kontroladore jarraia diseinatu.
- Kontroladore diskretua diseinatzeko teknikak jarraitu.
- Laginketa periodoa aukeratu.
- Modelo teorikoa modelo errearekin alderatu.
- Kontroladorearen doiketa egin.
- PID balio hoberenak atera.
- Denbora errearen influentzia aztertu.
- Ondorio zentzudun batekin eman.

Memoria honetan ez dira kontuan hartuko bidetik izandako arazoak. Aldiz, jarraitu beharreko bidea azalduko da.

D.ONURAK

Proiektu honen gauzatzeak dakartzan onura nabarmenenak, egileak irabazitako jakituria eta esperientzia dira. Gainera, ingeniartzaren hainbat arlo eta gai jorratu direnez, gradu amaierako ikaslearen "Know-how"-a zabaldu da. Beste onuren artean, kontrol sistema konplexuak aztertu baino lehen aurre-egindako lana gisa har daiteke, funtsezko kontzeptu garrantzitsuak ondo finkatzeko balio duena.

Egindako lana, "Open Source" filosofia jarraitzen duenez, edozein erabiltzailek eraldatu edo optimizatu dezake egindako diseinua. Horrela, gizartearen hobekuntza eta garapena edonoren esku utziz, mundu guztiak gozatu dezakeen teknologiaz baliotzen da, eta pertsona bakoitzak hartutako konpromisoaren bidez, gizarte hobe batera heltzeko aurrerapauso bat lortzen da.

Memoria honen irakurleentzat, Ball & Beam sistema bat eraiki nahi izatekotan laguntza-gida bezala har daiteke, ikerketa lana asko murriztuz eta arazo teknikoak saihestuz. Gainera, bai eskolarako zein unibertsitaterako maketa berdina edo antzekoa fabrikatu nahi izatekotan, eskuragarri izango du interneten kodea zein 3D piezak. Horrela, etorkizunerako ikasle berrientzat tresna didaktikoa uzten da haien esku, horrek dakartzan onura guztiekin.

E. BALDINTZEN DESKRIBAPENA

Baldintzen deskribapenari dagokionez, proiektuaren betebeharrak eta norainokoak azaltzen dira. Proiektua, baldintza hauen arabera garatuko da.

- Sistema oreka estatikoan adierazterakoan eta motorra baldintza normaletan (0°) edo hasierako posizioan egonda, habeak biratzen duen ardatzaren inguruan eta bielaren ardatzik altuena, lurretik distantzia berdinerara egon behar dira.
- Habearen euste ardatz batetik bestera 460 mm egongo dira.
- Motorraren biraketa angelua $+90^\circ$ eta -90° tartean izatea besterik ez da behar, horiek izango baitira habearen inklinazio handiena eta txikiena, batik bat.
- Sistemak ez duenez aplikazio espezifikorik, eredu gisa eta kontrolagailua garatu ahal izateko, hurrengo xehetasunak aukeratu dira:
 - Habearen luzera mugatua denez, ezin da onartu gainezarpen oso handirik, beraz, sistemaren gainezarpena %8-a izatea bilatuko da
 - Erantzun denbora zehazteko ezarpen denbora (t_s) 2,5s-tan ezarri da.
- Kontrolagailua Raspberry Pi batean garatuko da, Python programazio lengoaian.
- Distantzia neurtzeko sentsoarea Sharp sentsoare analogikoa izango da, GP2Y0A21YK bat, hain zuzen ere.
- Bihurgailuak erresoluzio nahikoa izan behar du datuak era egokian irakurtzeko.

F. ALTERNATIBEN ANALISIA

Proiektua garatzerakoan makina bat bide ezberdin jarrai daitezke helburu berdinerara heltzeko. Horregatik atal honetan, erabili daitezkeen osagai ezberdinak, metodoak edo sistemak aukeratzeko jarraitutako prozedurak aitortuko dira.

Batzuetan, norbanako eskuetan ez dagoen arrazoiengatik aukera konkretu bat egin behar da. Beste askotan, arrazoi ekonomikoengatik aukeratuko ez liratekeen zer edo zer onartu behar da, unibertsitateak erabilgarri duen diruaren eta ekipoen ahalmenarekin bat zuzenean erlazionaturik dagoena.

Lehenik eta behin esan beharra dago, mikrokontrolagailuaren alternatiben analisia ez dela egin, proiektuaren helburuetariko bat Raspberry Pi erabiltzea delako. Ordea, hurrengo gailuen analisia egin da eta kasu bakoitzean proiektuan eragin gehien dituzten ezaugarriak aztertu dira.

Hagatxo mugiarazteko ondorengo motor motak baloratu dira (*Taula 1*):


Taula 1 Motor ezberdinen alternatiben analisia

	Motor Mota	Prezioa	Bizkortasuna	Zehaztasuna	Kontrol Zailtasuna	Torquea	Guztira
Serbomotorea	Tower Pro SG90	9	4	8	7	6	6,8
Pausoz-pausoko Motorra	Nema 17	3	6	9	4	10	6,4
KZ motorra	Sourcingmap	4	7	3	6	6	5,2
Brushless motorra	DXW A2212	6	9	4	1	3	4,6


Serbomotorea kontrolik errazena izateaz gain, nahi den aplikaziorako aproposena dela eman du aurreko analisiak. Gainera, bere prezioa merkeena izanik eta mugi beharreko sistema oso arina ez denez aproposa egiten du erabiliko den aplikaziorako.

ADC-aren aukeraketa egiteko, seinale bat analogikotik digitalera eraldatzeko dauden metodo ezberdinak jarraitzen dituzten bihurtgailuak aintzat hartu dira. Honek, baldintzen deskribapenean zehaztutakoarekin bat egon behar du.


ADC-en ezaugarri garrantzitsuen zehaztasuna da. Zehaztasuna bi eratan eman daiteke, lagin denbora eta erresoluzio gisa. Bien artean konplimentatzen dira, ez dira elkar baztertzen. Lagin denbora ona izateak ez du kentzen erresoluzio onik ez izateak. Bien arteko erlazio bat ezartzen da eta bi propietate hauek era esanguratsuan izateak ADC hobea egiten du. Hobeto ulertzeko, hurrengo irudiak ikuskatzea eskatzen da (*Irudia 2-4*).



Irudia 2 Zehaztasuna adierazten duen grafika. Erresoluzioaren eta laginketa denboraren arteko harremana.



Irudia 4 Bit erresoluzioa adierazten duen grafika




Irudia 3 Lagin denbora adierazten duen grafika

Seinale analogikoak digitalizatzeko hainbat metodo eta forma existitzen dira. Hemen aipatuko dira erabilienetarikoa:

- Flash ADC


Bizkorrenetarikoa dira, horregatik hartu du "Flash" izenordez. Konparadore (*Irudia 6*) serie bat arduratzen da digitalizatzear. Funtzionamendua oso sinplea da, sarrera analogikoa konparadore bakoitzak duen erreferentziako tentsio batekin alderatzen da (*Irudia 5*), eta horren arabera irteera altua edo baxua ematen du (*Taula 2*), seinale analogikoa digitalizatuz.



Irudia 5 Flash ADC bihurtzailua

Taula 2 Konparaketa baldintza

Baldin eta...	Irteera
$V_{ANALOGIKOA} > V_{REF}$	Altua
$V_{ANALOGIKOA} < V_{REF}$	Baxua




Irudia 6 ADC baten konparadorea

Bere alde ona oso bizkorra dela da, baina alde txarrak ere baditu. Pila bat konparadore behar dira. Adibide gisa, 8 biteko ADC bat egin nahi izan

ezkero, 255 konparadore behar dira. Erresoluzio txikiagoa dute, nahiko garestiak dira eta kontsumo altuak dakartzate.

- Sigma-Delta ADC

Seinale analogikoa integratzailean sartzen da eta honen irteera lur erreferentzia seinalearekin konparatzen da. Iteratzen jarraitzen du irteera serie erantzun bat emanaz. Irteeraren "1" kopurua sarrera tentsioaren proportzionala da.




Irudia 7 Sigma-Delta ADC bihurgailuaren eskema

ADC mota honekin erresoluzio altuko bihurketa lortzen da kanpoko osagaien beharrik gabe. Ordea, ez da perfektua eta atsekabe gisa nahiko motela da bere gain laginketarengatik.

- Dual Slope ADC

Lagindutako seinaleak kondentsadore bat kargatzen du denbora finko batez. Denborarekiko integratzen da. Zarata bihurketatik ere integratzen da. Ondoren, bihurgailuak kondentsadorea deskargatzen du abiadura espezifikoko batean, kontagailu bat deskarga horrek zenbat irauten duen zenbatzen doan heinean. Deskarga denbora luzeagoak kontaketa handiagoa suposatzen du.




Irudia 8 Dual Slope ADC bihurgailua. Kondentsadorearen


Metodo motela da gero, eta kanpoko osagai espezifikoak eta zehatzak behar dira. Sarrera seinalaren batz bestekoa egiten da. Immunitate handiagoa du zaratarekiko. Doitasun handia du.

- SAR ADC

MSB setatu egiten da. MSB analogikora bihurtzen da DAC baten bidez. Konparaketa egiten da sumatutako balioarekin eta sarrerako balio berriarekin. Hurrengo bita probatzen da.




Irudia 9 SAR ADC bihurgailuaren barne funtzionamendua.



Irudia 10 SAR ADC bihurgailu baten sarrera eta irteera-ren arteko erlazio adibidea.

Oso abiadura bizkorretan funtzionatzeko gai da. Erresoluzio zenbat eta handiagoa izan orduan eta astiroago izango da bihurketa. Abiadura mugapen bat du, 5Mpsps-koa. Doiketa nahiko ona du beste bihurgailuekin konparatuz. Abiadura-prezio erlazio itzela.

Ondoren, aurretik aurre aurkeztutako ADC mota ezberdinak elkarren artean alderatuko dira, laburpen moduan, begirada batean argi gera dadin zeintzuk diren erresoluzio (*Irudia 11*), abiadura eta prezio handienak dituztenak (*Taula 3*) eta zeintzuk txikienak.



Irudia 11 ADC bihurtailu ezberdinek biltzen dituzten erresoluzio tartekak

Taula 3 Laginketa abiadura eta prezioa ADC ezberdinentzako

Type	Speed (relative)	Cost (relative)
Dual Slope	Motela	Bitartekoa
Flash	Oso Bizkorra	Altua
Successive Appox	Normala – Bizkorra	Baxua
Sigma-Delta	Motela	Baxua

Aukeraketa egiterakoan hauxe da baloratuko dena: Bihurketa egiteko bizkortasuna, zehaztasuna edo erresoluzioa, Raspberry-arekin konektatzeko malgutasuna (SPI, I2C, UART, paraleloan), informazio transferentzia kapazitatea edo ITC ($ITC = 2^N CS$ emanda).


Adibidez TLC0820AC-rentzako (5€), 400ksps eta 8 bit duena, bere ITC = $0,1024 \cdot 10^8$ da.

Taula 4 ADC bihurtailu ezberdinak alderazten duen alternatiben analisisen taula.

	ADC Mota	Prezioa	Bizkortasuna	(Bit) Zehaztasuna	Raspberry -arentzako Malgutasuna	ITC	Guztira
Dual Slope	TC7109/A	5	5	10	4	6	6
SAR (Successive Approximation Register)	MCP3008	8	10	8	8	7	<u>8,2</u>
Flash or parallel	TLC0820AC	7	7	7	3	6	6

Azkenean MCP3008-a aukeratu egin da, errendimendu prezio erlazioa paregabearengatik. Nahiz eta bere familia bereko MCP3004-a baino 4 kanal gehiago izan, askoz ere zabalduago dago eta dagoeneko liburutegiak aurki daitezke interneten. TLC0820AC -arekin paraleloan seinale digitalak Raspberry-ra bidali daitezke baina ia-ia sarrera irteera guztiak beteko lirakeke.

G. PROPOSATUTAKO DISEINUA



Aurreko bista
Eskala: 1:2

Irudia 12 Ball&Beam sistema. Alboko ikuspegia

1. RASPBERRY PI 3B+

Kontrol legea eraikitzeko erabiliko den sistema digitala Raspberry Pi 3B+ bat izango da (*Irudia 13*). Bere ezaugarrien artean bere Broadcom BCM2837B0 SoC bat da 1.4GHz ko abiadurarekin eta 64 biteko 4 nukleoko ARM Cortex-A53 prozesadoreaz baliatuta, 512KB-teko caché memoriarekin. Bertan, GNU/Linux-en Raspbian deituriko SE bat ibiliko da, irekia eta doakoa dena. Txartel hau, ordenagailu pantaila batera konektatzeko HDMI irteera, audio portua, Ethernet konexioa, haririk gabeko WiFi konexioa, 4 USB portu (sagua eta teklatuarentzako, adibidez), pantaila eta kamera batentzako CSI portua, eta erabilera orokorrerako irteera/sarrera (GPIO, General Purpose Inputs and Outputs) digitalaz osatuta dago. Komunikazioen artean, SPI, I2C eta UART aurkitu ditzakegu. Elikadura micro Usb baten bidez egingo da.



Irudia 13 Raspberry Pi 3B+ aren goitiko bista

2. MCP3008 ADC (Bihurgailu Analogiko Digitala)

Raspberry Pi 3B+ -ak ez duenez ez irteera ez sarrera analogikorik, eta seinale analogikoak irakutzeko asmoa dagoenez, seinale analogiko horiek digitalizatzeko bihurgailu bat erabiliko da. Alternatibean analisisan aukeratutako ADC-a 10 bit duen MCP3008-a da. Integratu honen berezitasun nagusia da, 8 kanaleko eskuraketa egin dezakeela eta SPI bidez informazioa bidali. Gainera, modu diferentzian irakurketak egiteko aukera ematen du.


$$LSB_{tamaina} = \frac{V_{REF}}{2^n - 1} \quad (G.1)$$

3. DISTANTZIA NEURTZEKO SHARP SENTSOREA (GP2Y0A21YK)

Ball & Beam sistemak pilota baten kontrola egin behar duenez, pilotaren posizioa jakin behar du. Erabili daitezkeen metodo ezberdinen artean, argi izpi sentsoarea, irudi ikuskapena, ultra-uhinak, etab., argi izpi infragorrien bidez distantzia neurtzen duen sentsoarea aukeratu da. Elikadura iturria (V_{cc}), 0.3v-etatik 7v-etara egin daiteke, eta bere irteera (V_o), sarrerako tentsioaren $\pm 0.3v$ -ekoa izango da (Formula G.2).


$$V_o = V_{cc} (\pm 0,3v) \quad (G.2)$$

Neurketa distantzia 10-80 zentimetroko tartean dago, eta irakurketa egoki batetik hurrengora beharko duen denbora maximoa 52,9 ms-koa izango da, ADC-ak konbertsioa egiteko behar duen denbora hartu gabe. Beraz, PID-aren laginketa aldia ezartzerako orduan, sentsoreak 60ms inguruko irakurketa denbora duela kontuan hartu beharko da, hots: $T_s \geq 60ms$



Irudia 14 Sharp sentsoarearen irakurketa denbora. Datasheet-etik.

Sentsoreak objektu argiak askoz ere hobeto detektatzen ditu objektu ilunak baino. Izan ere, paper txuri bat detektatzeko islapen indizea %90-ekoa da, ordea %18-koa da paper gris batekin. Hurrengo irudian ikusi daitekeen bezala, distantzia eta tentsioa erlazonaturik daude. Gainera, 7 cm inguru baino distantzia txikiagoak irakurtzen badira, arazoak egongo dira jakiteko kurba karakteristikoaren zein aldetan irakurtzen ari den.



Irudia 15 Sharp sentsorearen kurba karakterisitko hurbildua. Datasheet-etik.


Sentsore analogikoaren kurba karakteristiko ateratzeko, aztertutako hurbilketa ezberdinen balioak erakusten dira. Konstantzia utzi nahi da, argi dagoela polinomikoa dela hurbilketarik optimoena.

Sentsore analogikoaren kalibraketa kurba egiteko, objektu zuzen, zabal eta finko bat ipini da distantzia zehatz batera. Ondoren, eranskinetan dauden konexio elektriko guztiak gauzatu daudenean, aurretik aipaturiko ADC-ak emandako 0-1023 tarteko balioak irakurri egin dira Raspberry-arekin, 10 lagin ateraz eta horien batz bestekoa eginez. Jarraian, sentsorearen aurrean ipini den objektua zentimetro batzuk mugitu da eta prozesua errepikatu da zenbait iterazio.


Taula 5 Distantzia ezberdinetarako ADC-an jasotako irakurketa eta tentsioa.

Distantzia (cm)	ADC-aren Irakurketa	tentsioa (V)
1	470	1,51
2	467	1,50
3	721	2,32
4	727	2,34
5	730	2,35
7	727	2,34
8	724	2,33
10	676	2,18
13	577	1,86
15	485	1,56
17	434	1,40
20	376	1,21
23	341	1,10
25	330	1,06
27	310	1,00
30	280	0,90
33	263	0,85
35	252	0,81
40	239	0,77

Amaieran lortutako emaitzekin *Taula 5* bete egin da, eta Excel programak eskaintzen dituen hurbilketei esker, 5.graduko hurbilketa polinomikoa egin da, ekuazio karakteristikoa lortuz *Irudia 17*. *Irudia 16* aztertzean ikus daiteke nola 7 zentimetrotara egindako 2.35v-ko irakurketa baino txikiagoko distantziak ez direla kontuan hartuko, zentzugabeko emaitzak lortuko lirerateke. Hala eta guztiz ere, distantzia txikiak neurtzerakoan, neurtutako balioa oso urrun dago distantzia errealitatearekin. Hori gertatzen da, ekuazio karakteristikoa (EK) ez delako puntu horretan gehiegi gerturatzen. Beraz, bi EK egin dira, bata distantzia luzeentzako *Formula G.3*, eta beste bat laburrentzako *Formula G.4*.



Irudia 16 Distantzia ezberdinetarako jasotako tentsio dispersio grafikoa.



Irudia 17 Sentsorearen tentsioa eta distantzia erlazionatzen dituen dispersioa. 5. mailako bi hurbilketa polinomiko biltzen ditu, urdinez distantzia luzeentzako eta laranja distantzia laburrentzako.

Distantzia luzeentzako EK:

$$\begin{aligned}
 y &= -17,874x^5 + 146,44x^4 - 481,93x^3 + 804,15x^2 - 696,09x + 271,56 & (G.3) \\
 R^2 &= 0,9965
 \end{aligned}$$


Distantzia laburrentzako EK:

$$\begin{aligned}
 y &= -27575x^3 + 188463x^2 - 429165x + 325617 & (G.4) \\
 R^2 &= 1
 \end{aligned}$$


Programak 10 zentimetro baino distantzia luzeagoak detektatzen dituenean (edo 2,18v baino txikiagoko tentsioak), distantzia luzeentzako EK erabiliko du bere distantzia kalkulatzeko. Distantzia laburrentzako EK erabiliko du, 2,18v baino seinale handiagoa bada.

Hementxe uzten dira aztertutako beste hurbilketa mota ezberdinak:

Esponentziala




Irudia 18 Hurbilketa lineala *Irudia 17-k* dituen ardatz erlazio berdinekin




Irudia 19 Hurbilketa esponentziala *Irudia 17-k* dituen ardatz erlazio berdinekin

Logaritmikoa



Irudia 20 Hurbilketa logaritmikoa *Irudia 17-k* dituen ardatz erlazio berdinekin.


2. Ordenako Polinomikoa




Irudia 21 2. Ordenako hurbilketa polinomikoa *Irudia 17-k* dituen ardatz erlazio berdinekin.

3. Ordenako Polinomikoa

4. Ordenako Polinomikoa



Irudia 22.3. Ordenako hurbilketa polinomikoa
Irudia 17-k dituen ardatz erlazio berdinekin.




Irudia 23.4. Ordenako hurbilketa polinomikoa
Irudia 17-k dituen ardatz erlazio berdinekin.

4. PWM-A ETA SERBOMOTOREA

Serbomotore bat, -90° -etatik $+90^\circ$ -etara bira dezakeen motor bat da. Erabiltzaileak aurre-adierazitako posizio batera abiatuko da agindua eman bezain laster. Serbomotoreari posizioa adierazteko PWM seinale bat erabiltzen da. PWM-aren DC-a eta serbomotoreak hartuko duen posizioa erlaziozaturik daude.

Hurrengo irudian ikusi daitekeen bezala, PWM seinaleak 50Hz-etan funtzionatzen du, 1 milisegundoz balio altuan egonda, eta falta diren 19 milisegundo balio logiko baxuan egonda, serbomotorea bere posizio minimora joango da, hau da -90° -tara. Ordea, 2 milisegundoz altuan eta 18 milisegundoz baxuan badago, $+90^\circ$ -ko posizioa hartuko du. *Irudia 24*-an ikusten den bezala.



Irudia 24 Serbomotorearen angelu posizioa periodo edo Duty Cycle ezberdinetzako

5. SEINALE ANALOGIKOEN ESKURAKETAK

Seinale analogikoak eskuratzerakoan, hainbat alderdi hartu behar dira kontuan. Suposatuz sentsore jakin batek X aldagai bat neurtu eta Y erantzuna ematen duela (*Irudia 25*), sistema hau estatikoki karakterizatzeko modu bat bilatu behar da. Honi, kalibraketa kurba (*static transfer function*) deritzo, eta sarreraren aldagaiaren balioak, irteeraren aldagaiaren balioekin erlazionatzen du.



Irudia 25 Sentsore baten irteera eta sarrera errepresentazioa.

Erabili den sentsore analogikoaren informazio orrian, hurbilketa edo erreferentziatzeko kalibraketa kurba aurki daiteke (*Irudia 15*). Hurbilketa kurba hori eta sentsoreak errealitatean izango duen kurba (*Irudia 17*) ez da berdina izango. EK-a *Formula G.3* eta *Formula G.4*-k definituko dute.

Era berean, kurba karakteristikoa definitzen duen parametroen artean, irismena (*range*) eta tartea (*span*) aurki daitezke. Sistemaren sarrerarentzako onartutako balio bitarteari irismena deitzen zaio. "S" irismenaren muturren arteko diferentziari, ordea, tartea izango da.

$$S = X_{maximoa} - X_{minimoa} \quad (G.5)$$

Bi kontzeptu hauek ez nahasteko, termometro baten adibidea ipini da, non 34°C eta 42°C tarteko tenperaturak neurtzen dituen. Kasu honetan irismena ez da 0°C -tan hasten eta tartea 7°C -koa da.

Honi guztiari beste zenbait kontzeptu batzen zaizkio, errorea, zehaztasuna, doitasuna, errepikakortasuna, zona-hila, sentiberatasuna, histeresia eta linealtasuna besteak beste. Bere errore absolutua, sentsoreak praktikan ematen duen irakurketaren eta balore idealaren arteko diferentzia da. Doitasunaz hitz egiten denean, hartutako balio bereko lagin askoren errepikakortasunaz eta erreproduktzioaz hitz egiten da. Sarrera balio batentzat, irteera balio oso antzekoak izaten direnean sistema zehatza dela onartzen da. Hau guztiz egia izateko, irteerako balioa egiazkoa izan behar dela gehitu behar zaio.

Erabiliko den sentsoreak 10-80 zentimetroko irismena du eta neurketa tartea 70 zentimetro dira (*Formula G.5*). Sentsoreak distantzia finko bat irakurtzen duenean duen errepikakortasuna nahiko txarra da, horregatik, jasotako balioen batzaz bestekoa egingo da, zehaztasun falta hori hobetzeko asmoz.

Seinale analogikoak asko kaltetzen dituzten ezaugarri nagusia zarata da. Normalean bi motatako zarata aurki daitezke, barrutikoa eta kanpotikoa. Barne zarata, dispositibo elektronikoen berez sortzen duten desoreka da, agitazio termikoarengatik sortutakoa adibidez. Kanpo zarata, ordea, beste sistemek eragindako interferentzietatik du jatorria. Adibidez, sare elektrikoaren interferentziak edo motorrek sortutako dardarak. Horregatik garrantzitsua da erabiliko den sentsorea erreferentziazko lurrera ondo konektatuta egotea eta ADC bihurgailutik hurbil. Software bitartezko konpentsazioa egitea kontsideratuko da. Adibidez: leiho irristakorreko batzaz bestekoak, *low pass filter*, etab.

6. SEINALE ANALOGIKOEN BIHURKETA

Seinale analogiko batek edozein balio har dezake bere irismenaren barnean dagoen balio bat den bitartean. Hauxe garatuz, edozein bi balioen artean beti egongo da tarteko beste balore bat. Inplizituki esaten ari da, seinale analogiko batek erresoluzio infinitua duela (hala ez baldin bada ere). Mundu errealean, balio analogikoak ere finituak dira.

Aldiz, balio digital batek, bere irismenaren balore zehatz finitu bat adieraz dezake, eta balio analogikoekin alderatuz, ezinezkoa da beti bitarteko bi balioen arteko balore bat aurkitzea. Beraz, bere bereizmena finitua da.

ADC-ak mundu analogikoa eta mundu digitalaren arteko zubia eraikitzen du. Horregatik beharrezkoa da mundu erreala horren irudi digital ahalik eta zehatzena ateratzea. Hemendik aurrera, mikrokontrolagailua, PWM, kontrol legeak, etab. mundu digitalaren partaide izango dira.

ADC-ak eskuraketa egiterakoan bi eratan lan egin dezakete. Modu diferentzialean, edo lurrarekiko erreferentziatua. Era diferentzialean, zarata eragin gutxiago izaten du jasotako seinalean. Egia esan, alde bietatik jasotzen denez zarata, elkar baliogabetzen dira, seinale jatorria bakarrik utziz.

Erabiliko den ADC-a 10 bit ditu, baina bere bereizmena guztia aprobetxatzeko, elikatze tentsioa eta V_{REF} , eskuratuko den seinalearen tentsio maximoarekin bat egin behar du. *Irudia 15* berriro erreparatzen bada, atzeman daiteke harrapatu nahi den seinalearen tentsiorik altuena 3,3v ingurukoa dela. Beraz, MCP3008-aren V_{REF} sarrera eta elikadura 3,3v-etara konektatuko da. *Formula G.1* -ren bidez aztertu daiteke, nola ADC-ak detektatuko duen balio unitate bakarra zein tentsio baloreari egiten dion erreferentzia. Bihurgailutik irakurritako balioa erlazio horrekin zuzenean biderkatuz, posizioarekin erlazioatutako tentsioa atera daiteke.

$$\frac{3,3v}{2^{10} - 1} = 0,003226 v/pauso \quad (G.6)$$

Bihurgailuen beste ezaugarri oso garrantzitsua bihurketa denbora da, T_c . ADC-ak bihurketa agindua jasotzen duenetik, balio erabilgarri bat jasotzen den arte igarotako denbora bezala definitzen da. Bihurketa azkar bat bilatzen da beti, izan ere, bihurketa denbora, laginketa maiztasun maximoa definitzen du. Laginketa periodoa, bihurketa denbora baino handiagoa izan behar du beti.

$$f_s \leq \frac{1}{T_c} \quad (G.7)$$


7. KOMUNIKAZIO METODOAK ETA PROTOKOLOAK

Irteerei dagokienez, seriean edo paraleloan egon daitezke. Komunikazio paraleloak askoz ere bizkorragoak dira, bere balio digitala zuzenean bidaltzen delako. Baina bere desabantailak ere baditu, bit bakoitzeko pin bat behar baita, mikrokontrolagailua txikiegia denean pin-ak faltan egon daitezkelarik. Arazoarentzako alternatiba serieko komunikazioa da. Seinale gutxi batzuei esker, I2C edo SPI komunikazio protokoloak erabiliz, informazioa berdin hel daiteke mikrokontrolagailura, protokoloak informazioa bidaltzeko hartzen duen denboraren atzerapena kontuan hartuz.

Proiektu honen garapenerako SPI komunikazio protokoloa erabiliko da. *Full-duplex* den komunikazio hau, maisu-morroiei motakoa da. RaspBerry-a maisu bezala jokatu du eta morroiei aginduak bidaliko dizkie, kasu honetarako MCP3008-a morroiei gisa lan egingo du. Maisuak erabiliko dituen 4 harilen bidez komunikazioa hasi behar du beti.

- *MOSI*: Maisuaren irteera, morroien sarrera.
- *MISO*: Maisuaren sarrera, morroien irteera.
- *SCK*: Erloju seinalea, maisuak sortutakoa bere menpean dituen morroiak sinkronizatzeko.
- \overline{SS} , \overline{CS} edo \overline{CE} : Morroia aukeratzeko seinalea. Morroi bakoitzak izango du bere seinale independentea, eta balio logiko baxua jasotzerakoan txipa aktibatuko da. Morroia aukeratzekoan *daisy chain* deituriko lehenetsun metodo bat ere existitzen da, \overline{SS} seinale bakar bat erabiliz, hainbat morroi kontrolatzea lortu dezakeena.


Erloju seinale bat duen heinean, komunikazio sinkrono bat dela kontsideratuko da. Serie protokoloen artean abiadura handiak jasan dezakeen protokolo bat da, baita hari gehien erabiltzen duenatarikoa ere.



Irudia 26 SPI seriezko konexio adibidea

8. KONTROLAGAILUAREN DISEINUA ETA IMPLEMENTAZIOA

Kontrolagailuaren PID diseinua Matlab/Simulink tresnaren bidez egingo da. Jarraitu beharreko lehenengo pausua, begizta kontrolaren parte diren sistemen eredua egitea da. Sistemaren dinamika kontuan izanda eta jarraitu nahi den kontrol estrategia argi edukiz, kontrol begizta egin da, eta kontrolagailu jarraitua diseinatu da baldintzen deskribapenean aipaturiko egonkortasun eta erantzun irizpideak jarraituz. Ondoren, kontrolagailua diskretizatu egin da. Bere egokitasuna egiaztatu ostean, diferentziazko ekuazioa kalkulatu egin da RaspberryPi-an inplementatzeko. Behin frogatua, planta teoriko eta planta errealaren arteko diferentziak direla eta, K_p , K_i , K_d aldagaiak ajustatu dira eta eginbeharreko doiketak aplikatu dira.



Irudia 27 Kontrol begizta sinplifikatua.

$G_c(s)$ - kontrolagailua

$G_p(s)$ - Planta

$H(s)$ - Berrelikadura sentsoarea

8.1. EREDUA

Sistemaren dinamika irudikatzen duen modelizazioa garatuko da. Horrez gain, eragingailuen modelizazioa ere egingo da. Horretarako bi metodo ezberdin jarraituko dira. Kaxa zuriko modelizazioa eta kaxa beltzeko modelizazioa. Ondoren azaltzen da zertan datza mota bakoitza:


- Kaxa beltzeko modelaketa: modelizazio mota honetan, ezezaguna izaten da sistemaren barne dinamika. Horrenbestez, hauxe jakiteko metodo bakarra, sarrera irteeren arteko erlazioen bidez egiten da.

- Kaxa zuriko modelaketa: Kasu honetarako, sistemaren barne jokaeran eragiten dituzten lege fisikoak ezagunak izaten dira eta ekuazio diferentzialen bidez adieraz daitezke, adibidez.

Sistemaren planta, kaxa zuriko modelizazioaren bidez egingo da. Eragingailuarena ordea, kaxa beltzaren bidez egingo da.

8.2. ERAGINGAILUAREN MODELIZAZIOA

Erdi bideko elementuaren dinamika ezezaguna denez (serbomotorea), honek definitzen duen modelo bat bilatu nahi da, kaxa beltzaren metodoa erabiliz. Horretarako, *Irudia 28*-an ikusi daitekeen bezala, DC-a eta serbomotorearen irteera angelua erlazionatuko dira.



Irudia 28 Duty Cycle-a eta serbomotorearen angelua erlazionatzen duen dispersio laginketa


Matlab-ek eskaintzen duen planta identifikatzeko erremintarekin, PID Tuner barnean aurki daitekena (*Irudia 29*), planta berriaren TF lortu da (*Formula G.8*). *Identify new plant* botoian sakatuz eta *arbitrary input output*-en *Taula 6*-an agertzen diren balioak gehitzen eta parametroak aldatuz egin da.

$$G_{eragingailu}(s) = \frac{-18.24}{(0.0295s + 1)} \quad (G.8)$$

Irteera eta sarrera erlazionatzeko beste metodo bat, *Irudia 28*-an agertzen den grafikoaren ekuazio karakteristikoa ateratzea da. Programazio bidez gehitu daiteke oso erraz. Hori da beraz, egingo dena.

Taula 6 DC -a eta angelu laginketa

Serbomotorearen Angelua (°)	DC (%)
90	2,5
50	4,2
0	6,4
-10	6,9
-50	9
-90	11,6



Irudia 29 Planta identifikatzeko parametroen doiketa

8.3. SISTEMAREN MODELIZAZIOA

Eragingailuarekin ez-bezala, balantza sistemaren modelizazioa ekuazio fisikoetatik aterako da. Hau da, kutxa zuriaren metodoa erabiliz lortuko da.


Sistema berez ez dago orekan. Oreka lortzeko beharrezkoa da serbomotorea 0º-tan egotea, bestela habean dagoen pilota, leku batera edo bestera joango da. Motorra gurpil batetara lotuta dagoenez berearekin egingo du bira, eta biraketa mugimendua biela hagatxo baten bidez habe nagusira bideratuko da, oinarri nagusiarekiko mugimendu birakaria sortuz.

Aztertzen ari den sistemak gehien bat mugimendu birakariak dituen, dinamikaren errotazio legeak dira hauek zuzenduko dituztenak. Eranskinetan aurki daiteke zein da plantaren TF eta bertara heltzeko jarraitutako pausuak Horregatik, honen inguruan informazio gehiago bilatu nahi ezker *K.3.PLANTAREN MODELIZAZIO MATEMATIKOA* abiatzea gomendatzen da.

8.4. KONTROLAGAILU JARRAITUAREN KALKULUA


Planta fisikoa behin modelizatua eta eragingailuaren EK-a izanda, egin beharreko hurrengo pausua PID kontrolagailuaren ekuazioa lortzea da. Pausu hau garrantzi handiko betebeharra da sistemaren kontrolagailuaren jokaera zehaztuko baitu. Honi guztiari sentsorearen irabazi unitarioa gehitu egin zaio begiztari.

Lehenik eta behin sistemaren egonkortasuna aztertuko da, horretarako erroen lekua bilatu da begizta itxian.



Irudia 30 Plantaren erroen lekua begizta itxian


Irudia 30-n aztertu daitekeenez, sistema kritikoki egonkorra da bere poloetariko bik ardatz irudikarian daudelako. Sarrera unitario bat sartuz ezker eta sistemaren erantzuna aztertzean egiaztatu daiteke aurretik onartutakoa (*Irudia 31*)



Irudia 31 Plantaren erantzuna begizta itxian eskaloi sarrera batekiko.


Sistemaren mugapenak direla eta, bere erantzun baldintzei gainezarpentxia eskatu behar zaio sistemari, izan ere, pilotak ez du izango mugitze espazio fisiko nahikorik gainezarpena handia bada. Ez da hain garrantzitsua izango ordea, erantzun hain bizkorra izatea, onartze muga baten barruan dagoen bitartean. Egonkortzerakoan errorea baldin badago, kontrolagailuaren alde integrala denbora iraunkorreko errorea zuzenduko du. Kontrolagailua beraz, baldintza hauek betetzeko diseinatu egon behar da.

Kontrolatu egingo den begizta basikoa aurkeztuko da ondoren, aurretik aipaturiko blokeak eta grafiko interesgarriak ateratzeko beste batzuk izango dituenak (*Irudia 32*).



Irudia 32 Kontrol begizta basikoa sistema jarraitua simulatzeko.

PID-aren balioak Matlab-ek eskaintzen duen pidTuner erremintarekin lortutako balioak dira. Hasierako balioak ez zutenez bat egiten aurretik ezarritako baldintzekin, eskuz egin dira azken parametroen doiketak, ondorengo balio hauek emanaz:



Irudia 33 pidTuner erremintarekin lortutako erantzuna.

Irudia 33-en ikusi daitekeen bezala, %8,18-ko gainezarpena eta 2,54s-ko egonkortze denbora lortuko da kontroladorearen hurrengo parametroekin:


- $K_p = 6.9078$
- $K_i = 0.77125$
- $K_d = 8.3783$
- $N=827.9057$

N azken balio hori, kontrolagailuaren deribazioaren iragazketa koefizientetik dator. Koefiziente deribatiboaren eragozpen bat da, lan frekuentzia altuetan txarto funtzionatzen duena. Ball & Beam sisteman ez denez frekuentzia altuetan lan egingo, mesprezagarria da.

PID ekuazio orokorrean (Formula G.9) ordezkaturiko dira lorturiko K_p , K_i eta K_d balioak, kontroladorearen balioak lortuz (Formula G.10).

$$PID(s) = K_p + K_i \frac{1}{s} + K_d s = \frac{K_d s^2 + K_p s + K_i}{s} \quad (G.9)$$


$$PID(s) = G_c(s) = 6.9078 + 0.77125 \frac{1}{s} + 8.3783s \quad (G.10)$$




Irudia 34 Sarrera unitario batekiko erantzuna. Kontroladorearekin eta kontroladore gabe. BI-n

Sarrera unitario batekiko sistemaren erantzuna *Irudia 34*-n agertzen da. Urdinez, kontrolagailuarekin sistemak izango duen erantzuna, eta gorritz kontrolagailurik gabe. Hasieran finkatutako baldintzekin alderatuz, %0,18-tan gaindituko du gainezarpena. Sistemak, bilatzen zen ezarpen abiadura gaindituko du, baina onartu beharko da, sistema amortiguazio handiegirik ez bada nahi.

Nahi den erantzuna lortu ostean, sistemaren egonkortasuna aztertuko da. Horretarako sistemaren erroen lekua bilatu da (*Irudia 35*), baina oraingo honetan kontrolagailua ere aztertuz. Erroen lekua, K irabaztearen arabera grafiko bat da, zerotik infinitura doana. Grafiko honen bidez, sistemarengan duen K irabazte horren influentzia azter daiteke.



Irudia 35 Sistemaren erroen lekua kontrolagailuarekin. BI-n




Irudia 36 Lehenengo handipena (35.irudiarena)

Ardatz irudikaria baino eskumatarago elementurik ez daudenez (*Irudia 35*), sistema egonkorra izango da K balio guztientzako.

Ardatz irudikaritik hurbil dauden beste polo eta zeroak, hain hurbil daude bata bestetik elkar ezeztatu daitezkeela. Horregatik mesprezagarriak direla esan daiteke. Beraz, polo dominanteena -6.3 inguruan dagoena izango da.

8.5. KONTROLAGAILUAREN DISKRETIZAZIOA

Kontrolagailua Raspberry Pi batean ibiliko denez, beharrezkoa da kontroladore diskretu bat diseinatzea ordenagailu honetan implementatu ahal izateko. Kontrol diskretua aztertzeko, lehenik eta behin zenbait blokeen definizioa ulertu behar da. *Irudia 37*-an agertzen den sistema hibridoak, bloke jarraituak eta bloke diskretuak biltzen ditu.



Irudia 37 Kontrol begizta hibridoa. Sistema laburpena diskreturako

Kontrolagailu digital bat implementatzerakoan zuzenean eragiten duten pausurik garrantzitsuenak, diskretizazio metodoa eta laginketa periodoa dira.

Laginketa periodo aproposa aukeratzeak, sistemaren kontrol digitalaren egonkortasunean eta sendotasunean eragina du, baita bere jokaeran ere. Sistema diskretuak, sistema jarraituak bezain ondo funtzionatu beharko du, aurretik zehaztutako beharrian eta baldintzekin bat egiten. Laginketa denbora egokia aukeratzea ezinbestekoa da. Denbora hau oso txikia bada, izan daiteke sistemari informazio berririk ez ematea eta alferrikako informazioa prozesatzen egon izana. Ordea, handiegia bada, baliteke sistema dinamikoaren portaera egokia eragozte.

